



EBAZPENA, 2023 urtarrilaren 17koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dira

Hezkuntza sailburuaren 2022ko urriaren 7ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak hamalagarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2022ko urriaren 14a), argitara ematen dira lehiaketa horretan eskainitako behin-behineko lanpostu hutsak.

Horren ondorioz,

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin-behineko lanpostu bete behar diren Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketaren bidez.

Bigarren artikulua.- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 17a

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**